

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua, lana modu eroso batean bilatzeko WEB gune bat izango da.

Hasiera batean, WEB orrialde bat egitea pentsatu genuen. Web honetan, anonimoa den kontu batekin, Bizkaiko mapa batean, lan mota asko aterako dira, eta gai guztietakoak gainera; jatetxe bateko langile, sukaldari izatea, enpresa bateko idazkari, arropa denda bateko langile... hau da, kualifikazio gabeko lanak izan daitezke edota kualifikazio eta prestakuntza beharrezkoa den lanak ager daitezke.

Esan moduan, Bizkaiko mapa batean, nahi duen herria aukera dezake kontu honetako edozein ikaslek. Horrela, herri horren barruan, lan aukera asko eskaintzen dira, eta lan bakoitzari buruzko hainbat informazio eta datu ematen dira.

Lanaren ezaugarriak irakurri ondoren, lan horretan pertsona batzuen esperientzia pertsonala azalduta egongo da: Soldata errentagarria edo latza, ordutegi malgua ala txarra, jasotako tratuari buruz ere hitz egongo da, lankideei buruz.... eta hainbat gauza landuta egongo dira aurrerago hortxe lan egin duen langilearen iritzia buruz.

Kontua zabaltzean, bi aukera daude, eduki duzun lan bati buruz komentatzea ala informazioa irakurtzea eta bilatzea.

Informazioa, oso baliagarria izango da. Hala ere, komentarioak guztiz subjektiboak direla aipatu behar da.